NAFARROAKO LANDA-EREMUKO MERKATARITZA SUSPERTZEKO ZERBITZU-SAREA. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULAK.

INFORMATU BEHARRA

DBEOaren 13. eta 14. artikuluak, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoko 11. artikulua betez, datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa eman behar zaie horren inguruko interesa dutenei, datu horiek biltzen diren unean berean.

Informazioaren tratamendua bi informazio-geruzatan banatzen da:

1. Informazioa biltzearen eta zaintzearen arduradun nagusiak, eta informazio hori biltzearen helburua eta informazio horren jabeen eskubideak.
2. Informazioaren tratamenduaren arduradunak, tratamendu horren xedea, datuak hirugarrenei ematea eta datuen jabeen eskubideak.

INFORMAZIOA BILTZEA ETA ZAINTZEA.

Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko informazioa
Erantzukideak:
Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia).
Cederna Garalur Elkartea
Teder Elkartea
Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldea
Eder Partzuergoa
Xedea: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia, bere eskumenak gauzatzeko eta, interes publikoko arrazoiengatik, TETen kasuan. Bi kasuetan, xedea da Nafarroako landa-saltokien datu-base bat eratzea (Nafarroa osoko bat adierazitako Zuzendaritza Nagusirako edo lau datu-base TET bakoitzaren lurralde-eremurako), eremu horretan dauden ETEei berariazko sustapen-politikak eta laguntza publikoak diseinatzea errazteko (aipatutako Zuzendaritza Nagusiaren kasuan), edo landa-eremuetan ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa sustatzeko eta lurralde bakoitzeko lan-munduratzea eta enpresa-ekimenak sustatzeko (TETen kasuan).
Eskubideak: Datuen tratamendua eskuratu, zuzendu, ezabatu eta mugatzea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala, erantzukideetako edozeinen aurrean.

Informazio osagarria: Nafarroako Gobernuaren webgunean (datu pertsonalak babesteari buruzko atala)

INFORMAZIOAREN TRATAERA.

Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko informazioa	
TRATAMENDUAREN ERANTZUKIDEAK	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua Tomas Caballero parkea, 1. 31006 Iruñea desarrollo.economico@navarra.es Nafarroako Gobernuak Datuak Babesteko Ordezkaritza Carlos III etorbidea, 2. 31002 Iruñea. dpd@navarra.es ------ Eder Partzuergoa. Ha Levi Yehuda palza, 1 31500 Tutera eder@consorcioeder.es ------ Teder Elkartea Bell-Viste kalea, 2 31200 Lizarra teder@montejurra.com ------ Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldea Las Pozas kalea, 13. 31300 Erriberri consorcio@navarramedia.org ------- Cederna Garalur Elkartea Berriobide kalea 40, 001 bulegoa 31013 Antsoain info@cederna.es
TRATAMENDUAREN XEDEA	**Merkataritza, Turismo eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia**: Xedea da Nafarroako landa-eremuko saltoki guztien datu-base bat sortzea, eremu horietan dauden ETEei berariazko sustapen-politikak eta laguntza publikoak diseinatzea errazteko eta aipatu eremu horretako txikizkako merkataritza sustatzeko jardueren berri zuzenean eman ahal izateko. Estatistika-helburuetarako ere erabiltzea aurreikusten da. **Tokiko Ekintza Taldeak**: Xedea da TET bakoitzaren

	lurraldean dauden saltokien datu-base bat sortzea, landa-eremuetan ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa sustatzen jarraitzeko, eta lurralde bakoitzeko lan-munduratzea eta enpresa-ekimenak sustatu ahal izateko. **Bi aldeek batera duten xedea**: Aipatutako Zuzendaritza Nagusiak eta TETek helburu komun bat dute: landa-eremu horietan ekonomia-jarduerak mantentzen eta sortzen laguntzea, despopulazioa geldiarazteko eta lurralde-oreka handiagoa lortzeko, eta, oro har, landa-merkataritzaren egoeraren diagnosi-dokumentuan adierazitako puntu kritikoei (ahuleziak eta mehatxuak) erantzutea. Emandako datu pertsonalak tratamenduaren helburuak betetzeko datu horiek beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, zehazki, interesdunak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) baja eman arte, txikizkako merkataritzaren epigrafeetan.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	Tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misio bat betetzeko edo botere publikoak gauzatzeko, Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legean eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 265/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Tratamendua DBEOaren 19.3 artikuluaren arabera babestuta dago, harremanetarako datuei eta banakako enpresarien eta profesional liberalen datuei dagokienez.
DATUEN JATORRIA	Identifikazio-datuak, harremanetarakoak eta, hala badagokio, merkataritza-jarduerarekin edo merkataritzarako lokalarekin lotura duten beste datu batzuk, funtsean, Nastat-Nafarroako Estatistika Institutuak ematen dituen datuen bidez lortzen dira, baita tokiko ekintza-taldeen bidez saltokietatik zuzenean jasotakoetatik ere.
DATUEN JASOTZAILEAK	TETek ezin izanen dizkie datuak partikularrei eman, bai, ordea, administrazio publikoei, merkataritza-sektorearentzat interesgarriak diren jarduerak egin ahal izateko. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak datuak eman ahal izanen dizkie Nafarroako Gobernuko beste organo batzuei, baita beste administrazio publiko batzuei edo kontrolerako agintari,

	auzitegi eta erakunde publikoei ere, haien eginkizunak bete ditzaten.
ZURE ESKUBIDEAK ZURE DATUAK EMATEN DITUZUNEAN	Zure datuen inguruan erabil ditzakezun eskubideak jarraian aipatzen diren horiek dira (Nafarroako Gobernuaren webgunean ere kontsulta daitezke, datuen babesari buruzko atalean): (https://www.navarra.es/eu/datuen-babesa): • Irispidea: zer datu lantzen ari diren ezagutzea. • Zuzenketa: zehaztugabeak edo osatugabeak badira. • Mugatzea: tratamendua mugatzeko; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko gordeko dira soilik. • Aurka egitea: zure datuen tratamendua eten dadin, ezinbesteko arrazoi legitimoak daudenean izan ezik, edo egon daitezkeen erreklamazioak egin edo defendatzeko izan ezik. • Ezabatzea: bildu ziren xederako beharrezkoak ez diren datuak ezabatzeko. • Datuak transmititzea: datuak norberari entregatzeko eskubidea, beste erakunde arduradun bati emateko. • Baimena baliogabetzea: datuak tratatzeko baimena eman ondoren, baimen hori edozein unetan kentzeko aukera ematen du; horrek ez dio eragingo aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunari, eta horrek dakartzan ondorioekin.
NOLA BALIATU ZURE ESKUBIDEAK	Eskubide horiek edozein erantzukideren aurrean baliatu ahal izanen dituzu, honako hauen bidez: • Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari bideratutako idazkia edo posta elektronikoa. Zure eskubideak baliatzeko dokumentu horien ereduak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren webgunean aurki ditzakezu (www.agpd.es). • Nafarroako Gobernuaren zerbitzuen katalogoaren hurrengo izapidearen bidez. • Halaber, erreklamazio bat aurkez dezakezu datuak babesteko arloan eskumena duen kontrol-agintaritzaren aurrean (https://www.aepd.es/es/derechos-y-deberes/conoce-tus-derechos) edo Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean. • Edo Nafarroako lau Toki Ekintzako Taldeei

	bideratutako idazki edo posta elektroniko bat bidalita.
INFORMAZIO OSAGARRIA	Informazio osagarria kontsulta dezakezu Nafarroako Gobernuaren webgunean, datu pertsonalak babesteari buruzko atalean.